

### Autoebaluaketa: III ZATIA (9-13 ikasgaiak)

- 1.- Antiinflamatorio ez esteroideoen ekintza mekanismoaren gainean, zein da zuzena?:
  - a) Farmako guztiek afinitate berdinarekin inhibitzen dituzte COX1 eta COX2 entzimak.
  - b) Hantura bitartekarien adierazpen genetikoa aldatzen dute.
  - c) Hartzaile opioideetan eragiten dute.
  - d) Batzuek COX2 selektiboki inhibitzen dute.
  - e) Parazetamolak plaketetako COX1 inhibitzen du.
  
- 2.- Ondoko farmako antiinflamatorioetatik, zeinek dauka tronboenbolismoa sortzeko arriskurik handiena?:
  - a) Parazetamola
  - b) Zelekoxib, COX2 inhibitzaile selektiboa
  - c) Azido azetilsalizilikoa
  - d) Ibuprofenoa
  - e) Diklofenako
  
- 3.-Ondoko aukeretatik zein ez dagokio AIEE taldeari?:
  - a) Aspirinak ahozko antikoagulatzailearekin batera erabiltzen deneak odol-ateratze denbora luzatzen du.
  - b) Eragin diuretikoak handitzen du
  - c) COX inhibitzen du
  - d) Min arin-moderatuak arintzeko erabilgarriak dira
  - e) Parazetamolak ez dauka eragin antiinflamatoriorik
  
- 4.- Glukokortikoideen gainean, zein da faltsua?:
  - a) Transplante errefusak ekiditzeko erabiltzen dira
  - b) Oso analgesiko eraginkorrak dira
  - c) Hartzaile nuklearretan eragiten dute
  - d) Kronikoki erabilia Cushing sindromea sortzen dute
  - e) Kronikoki erabilia kortikoideen barneko jariaaketa inhibitzen dute
  
- 5.- Glukokortikoideen erabilgarritasun terapeutikoen artean, zein ez dago?:
  - a) Shock anafilaktikoa
  - b) Osteoporosia
  - c) Artritis erreumatoide
  - d) Asma
  - e) Belauneko artrosia (infiltrazioak)
  
- 6.- Lidokainari dagokionez, zein da zuzena?:
  - a) Anestesiko lokala da
  - b) Erbilgarritasun terapeutiko nagusa minbiziak sorturiko mina da
  - c) Boltai-menpekorreko potasio erretenak blokeatzen ditu.
  - d) Aho bidez hartzen da
  - e) Urdail-hesteko ultzerak sortzen ditu

- 7.- Ondoko farmakoetatik, zein erabiltzen da gehienetan ezdularen kontra?
- a) kodeina
  - b) Morfina
  - c) Naltrexona
  - d) Adrenalina
  - e) Naloxona
- 8.- Metadonari dagonionez, zein da zuzena?
- a) Agonista adrenergikoa da.
  - b) Analgesia sortzen du.
  - c) GABA<sub>A</sub> hartzaillean eragiten du
  - d) Opiazeozko gaindosietan erabiltzen da.
  - e) Antagonista opioide da.
- 9.- Zer farmakoa erabiltzen da opiazezko gaindosietan?:
- a) Naloxona
  - b) Heroina
  - c) Fentaniloa
  - d) Metadona
  - e) Kodeina
- 10.- Buprenorfinaren ezaugarri farmakologikoen artean, ondoko bat ez dago:
- a) Morfinaren eragin analgesiko baino luzeagoa dauka
  - b) Morfina baino eraginkorragoa da mina arintzen
  - c) Morfina baino liposolugarriagoa denez txaplaten bidez ematen da.
  - d) Antagonista opioide da.
  - e) Idorreriaren kontra erabiltzen da.